

# AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ. DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN Y CULTURA:

## GO GASTEIZ KULTURA: kultura gizartean eragiteko tresna gisa





Paco Galve Borja

[direccioncultura@vitoria-gasteiz.org](mailto:direccioncultura@vitoria-gasteiz.org)

945161264

<https://gasteizkultura.org/category/zureago/>

 **Jarduera:** Kultura Zerbitzuak udal-baliabideak ahalbidetu eta kudeatzen ditu, kultura hiriaren motor izan dadin, hiri modernoa, berritzailea eta sortzailea lortzeko, non herritarren bizi-maila eta garapen pertsonala hobetu eta kultura-sorkuntza sustatzen den.

 **Sektorea:** Sektore publikoa

 **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 240

 **Lokalizazioa:** Plaza del Machete s/n (Palacio de Villa Suso), 01001 , Vitoria - Gasteiz, Araba

## EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA

## Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?

Proiektu soziokultural berritzailea da, gizarte-eremutik datozen lan-metodologiak eta kultura-sektoretik datozen edukiak eta prozesuak elkartzen dituena, lankidetzaren publiko-pribatuaren esparruan. Eremu guztiek elkar aberasten dute, herritarrengandik sortzen den ekimen berritzaile bat sortzeko; berritzailea da funtsean (familia-egoera konplexuan dauden gazteek elkarriketak egiten dizkiete tokiko sortzaileei eta artistei) eta forman (gazteek sortzen dituzte lan egiteko modua, elkarriketaren formatua eta xehetasunak).

## KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

ZureaGO 2019aren amaieran sortu zuten gizarte-hezitzaile batzuek eta Go Gasteiz Kulturako kudeaketa-taldeak, zeregin bikoitz batekin: alde batetik, gazteen artean partaidetza eta kulturaren kontsumoa sustatzea, eta, bestetik, Kaleko Hezkuntzaren Udal Programari (familia-egoera konplexuetan dauden gazteei arreta emateko programa) kalitatezko prozesu eta edukiak ematea.

ZureaGOren helburua da kaleko hezitzaileek lagundutako gazteak Go Gasteiz Kultura plataformarako kultura-dukien sortzaile bihurtzea. Gazte horiek izango lukete aukeratutako artista bati elkarriketa bat sortu eta lortzeko ardura, eta horrela, Go Gasteiz Kulturaren kultura-komunikazioko estrategiaren zati baten erabakitzaile eta sortzaile bakarrak izango lirateke. Haien lana prozesu osoa garatzea da: Gasteizen zein artista edo kultura-erakunde dauden ikertzea, artista aukeratzea, elkarriketa prestatzea eta garatzea grabazio-estudio batean.

ZureaGOrekin, kultura lan-tresna bihurtzen da kaleko hezitzaileek garatutako gizarte-arretako prozesuetarako. Proiektuaren balioa elkarriketa prestatzeko denboran datza; bertan, trebetasun bigunak eta gogorrak ikasten dira, eta gazteek elkarri eragiteko aukera dute. Norberaren gaitasun eta kalitateak deskubritzeko gunea da, helburu profesional edo pertsonal bat lortzeko lan, dedikazio eta ahaleginaren ahalmenak duen garrantziaren ikaskuntza. Gainera, arteari eta kulturari buruz hitz egiteko aukerak gai ukiezinei buruz hitz egitera garamatza, hain zuzen ere, ukiezinak izateagatik eguneroko bizitzan ez zaie behar adinako arretarik eskaintzen.

ZureaGOren edizio honetan, elkarriketazailerak eta elkarriketatutako guztiak emakumeak izan dira. Guztien artean berdintasun- eta profesionaltasun-espazio bat eraiki da, eta horrek nabarmendu du gazteek egindako lanaren balioa. Horrela, Ainara Unanue dantzari, koreografo eta irakaslearen edo Elisa Rueda idazle, poeta, aktore eta irakaslearen bizitzako pasarteak ezagutzea esperientzia esanguratsua eta inspiratzailea da, zalantzarik gabe, inplikaturako pertsonentzat.

Ekimena pandemian zehar garatu da, eta diziplina anitzeko talde batek kudeatu du: Gasteizko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Kaleko Hezkuntza Programa, eta Kultura Sailaren Go Gasteiz Kultura Proiektua. Horiekin batera, Go Gasteiz Kultura proiektuaren kudeatzailea izan den Teklak komunikazio-estudioa, eta, kaleko hezkuntzako programaren kudeatzailea izan den IRSE.EBI.

## Aurrekariak

Go Gasteiz Kultura Gasteizko Udaleko Kultura Sailak 2018-2021 Kulturaren Plan Estrategikoaren esparruan bultzatutako kultur komunikazio digitalaren estrategia da. Go Gasteiz Kultura topagune bat da sortzaile eta kultur eragileentzat, bere inguruan garatzen ari diren ekimenak ezagutarazteko eta proiektu berriak sortzen laguntzeko. Testuinguru horretan sortu zen ZureaGO, non interes sozialak eta kulturalak elkartzen baitira, gazteak protagonistak izanik.

## Erronka

Erronka nagusia da gazteak Go Gasteiz Kultura kultura-komunikazioko strategiaren zati baten erabakitzaile eta sortzaile izatea, Kulturaren Plan Estrategikoaren barruan, eta kultura lan-tresna bihurtzea kaleko hezitzaileek garatutako gizarte-arretako prozesuetarako.

## Ekintzak

- 2019ko uztailea: Vitoria-Gasteizko Udaleko Kultura Sailak 2018-2021 Kulturaren Plan Estrategikoaren (PEC 2018-2021) barruan, Go Gasteiz Kultura programaren kultur komunikazioaren estrategia argitaratu zen, modu irekian, eta tresna digitalak abiarazi zituen, kultura hedatzeko. ZureaGO proiektua arlo horretan kokatu behar dugu.
- 2019ko urria: gizarte-hezitzaileen eta Go Gasteiz Kulturaren talde kudeatzailearen arteko topaketa. Alde bien interesak bat datoz: batetik, hezitzaileek edukia duten kalitateko lan-prozesuak eskaini nahi dizkiete gazteei, ahalduz, prestatzen, sozializatzen... laguntzeko; bestalde, talde kudeatzaileak kultur publiko berriak sortu nahi ditu; bereziki, gazteei begira.
- 2019ko azaroa-abendua: ZureaGO proiektua diseinatzeko lan-prozesua, gizarte-hezitzaileen eta Go Gasteiz Kulturaren talde kudeatzailearen partaidetzarekin.
- 2020ko urtarrila. Prozesu osoa abiaraztea: behin programan sartuta, gazteek ezagutza eta trebetasunak bereganatzen dituzte elkarriketaren prozesua gauzatzeko: kultur sektorearen eta tokiko sormen-sektorearen mapa ezagutzea, lankidetzako diseinu eta talde-lanerako tresnak, trebetasunak eskuratzea (ahozko adierazpena, gidoiak egitea, irratilokuzioa...) eta berekin ari den talde profesionalarekin batera eskuratzen duten ezagutza.
- 2020ko martxoa: lehenengo elkarriketa argitaratzea.

## Lortutako emaitzak

- 3 elkarriketa, hauek inplikaturak: 6 gazte, 3 artista, 3 hezitzaile 2 kultur kudeatzaile, 2 argazkilari eta 2 grabazio-technikari. 350 pertsona

inguruk entzun dituzte entrebistak.

- Inpaktu kualitatiboa: gazteen ahalduntzea: proiektua egiteko arrazoia eta protagonista aktiboak. Hezitzaileek laguntzen badute ere, gazteek hartzen dituzte erabaki guztiak. Lan-eta gobernantza-sistema garrantzitsua da edozein gazterentzat, eta are garrantzitsuagoa familia-egoera konplexua duten pertsonentzat.
- Kaleko hezkuntza-programa aberastea: kultur edukiakin ingurune profesional batean eta askatasun osoz lan egiteak aukera eman die hezitzaileei kalitateko lan-helburu inspiratzaile bat edukitzeko.
- Parte-hartzea duen proiektua: proiektu horren bitartez, Go Gasteiz Kulturak bere edukiak proiektutik kanpoko pertsoneri zuzendu ahal izan dizkie.
- Publiko berriak: edukien hautaketan gazteen irizpidea eta edukiei ekiteko gazteen ikuspegia izanda, Go Gasteiz Kultura herritarren segmentu batera iritsi ahal izan da, eta horrela, PECen helburuetako bat lortu da.
- Berdintasuna: gaur egun arte, gazte parte-hartzaileen % 100 emakumeak izan dira, bai eta elkarrizketatu guztiak ere.

---

## KASUAREN KATEGORIZAZIOA

---

### Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Ondasun fisikoak.

### Aukera arloak:

- 1 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa

**Ainhoa (gazte parte-hartzailea)**

«Proiektuak lasaitasun handiagoa eman dit. Elkarrizketa horien hasieran urduri nengoen eta ez nekien ezer... baina denborak aurrera egin ahala, nik neuk gidatzen nituen kideak».

**Proiektuan parte hartu duten kaleko hezitzaileak**

«ZureaGOk tokiko kulturara modu atsegin batean gerturatzea ahalbidetzen du».

«Gazteek ikasten dute zer garrantzitsua den lanaren kultura, motibazioa ez dela nahikoa (arloan ere ez) helburu bat lortzeko; ahalegina eta denbora behar dira»

«Emakumeen ahalduntzea kultura arloan».

**Innovation Index Score: ★★★★★**

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★★★★

Aintzatespena: ★★★★★